

Topalekua

96 zk. 2017ko azaroa

noviembre 2017 - n.º 96

1. orr.: *Gizarte Kontseiluak 2016. ekitaldiari dagozkion UPV/EHUko kontuak onetsi ditu*

2. orr.: *CYD Txostena: Langabezia-tasa lortutako ikasketa-mailaren araberakoa da*

3. orr.: *Unibertsitate-tituludunen lan-tasa ELGA-ko batez bestekoa baino 4 puntu beherago dago*

4. orr.: *Ingeniaritza, Zientzia eta Teknologiako Unibertsitate-Prestakuntzaren Klusterra sortu da*

GIZARTE KONTSEILUAK 2016. EKITALDIARI DAGOZKION UPV/EHUko KONTUAK ONETSI DITU

Joan den urriaren 25ean egindako Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak 2016ari dagozkion UPV/EHUko Kontabilitateko Egoera-orriak onetsi zituen; ekitaldi horretan 402,2 milioi euroko hasierako aurrekontua izan zuen, baina kopuru horrek aurreko ekitaldietako soberakinen eraginez gora egin zuen, 501,4 milioi eurora arte. Horietatik Unibertsitateak %84,66 exekutatu zuen, 424,5 milioi alegia, 3,85 milioi euroko diruzaintzako soberakinaz.

Kontseiluaren Osoko Bilkurak, akordio berean, Unibertsitateak gehieneko parte-hartzea duen erakundeetako Kontabilitateko Egoera-orriak ere onetsi zituen, EUROIKER, UPV/EHUko Udako Ikastaroak, Medikuntzaren eta Zientzien Historiari buruzko Euskal Museoa eta Euskampus-enak, zehazki.

Ekonomia eta finantzei buruzko informazio hori Univesidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak unibertsitateko gobernu-organoari aurkeztu zion, gizarteari kontuak emateko prozesuaren esparruaren barruan.

Ordainsari osagarriak

Gizarte Kontseiluak 2017. urteari dagokion Ordainsari Osagarri Gehigarrien VII. Deialdia ere onetsi zuen, UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileek, Eusko Jaurlaritzaren 209/2006 Dekretuan ezarritakoari jarraiki, irakaskuntza- eta ikerketa-arloetan egindako merituak aitortzen

dituzten osagarri horiek esleitzea eskatu ahal izan dezaten.

Deialdia Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu da, eta bertan ordainsari osagarriak eskatzen dituzten irakasleek horiek jaso ahal izateko bete behar dituzten epeak, modua eta betekizunak ezartzen dira eta ordainsari osagarriok hiru mailatan sailkatzen dira: A maila, bikaintasuna aitortzera zuzendua; B maila, kalitatea eta etengabeko hobekuntza balioesten dituen; eta C maila, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean egindako jardun profesionala saritzen duena.

Ikasketa osagarriak

Kontseiluak, halaber, ikasketa osagarriko bi ikastaroren matrikula-tasak onetsi zituen: «Justizia leheneratzailea: Bitartekaritzari buruzko ikuspegi berriak (4. ed.)» eta Moda-diseinua eta Goi Mailako Joskintza, Javier Barbeta & UPV/EHU (1. ed.).

Batzar berean, Osoko Bilkurak Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak gehiengo esku-hartzea (Grupo EHU, EHU Taldea) eta gutxieneko esku-hartzea edo ordezkari instituzionala duen 44 erakundeei buruzko txostena ere aztertu zuen.

Azkenik, Kontseiluak Unibertsitateak eskatutako aurrekontuko zenbait aldaketa onetsi zituen ere.

CYD TXOSTENA: LANGABEZIA-TASA LORTUTAKO IKASKETA-MAILAREN ARABERAKOA DA

2016an, CyD Txostenean jasotako Eurostat-en datuen arabera, Espainiako 25 eta 64 urte arteko biztanle helduen %35,7k hirugarren edo goi-mailako hezkuntzako titulazioa zeukan (graduatu edo goi-mailako prestakuntza-zikloa); ehuneko hori %41 arte igotzen zen 25etik 34 urtera bitarteko biztanleen artean, EBko batez bestekoa baino hiru puntu gehiago. Hala ere, prestakuntzarik handieneko kolektiboaren langabezia-tasa Europako batez bestekoa baino hiru puntu handiagoa zen.

Edonola ere, eta tituludunen ratioak prestakuntza-maila bat beheragokoekin alderatuz gero ikus dezakegu goi-mailako graduatuen jardura-tasa 6,1 puntu handiagoa dela; aldiz, okupazioa 10,6 puntu handiagoa da eta langabezia 6,1 puntu txikiagoa. Aldi berean, ezberdintasun horiek EBko kolekti-

bo bereko okupazio- eta langabezia-tasei dagozkien datuak alderatuz gero egiaztatu daiteke Europako batez bestekoan diferentziala 10,1 eta 2 puntukoa dela, hurrenez hurren.

Euskadiren kasuan, eta 16 urte edo gehiagoko biztanleentzat, goi-mailako graduatuen jardura-, okupazio- eta langabezia-tasak %80,4, %73,7 ETA %8,3 dira, hurrenez hurren; derrigorrezkoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituztenen artean, aldiz, tasa horiek %60,7, %52,1 eta %14,1 dira. Aldeak itzelak ziren derrigorrezko ikasketak besterik ez dituzten pertsonen kolektiboarekin alderatuta. Edonola ere, eta Estatu osoan zein Euskadin, zenbat eta ikasketa-maila handiagoa orduan eta jardura- eta okupazio-tasa handiagoa eta langabezia-tasa txikiagoa ikus daitezke. Datu horiek guztiak Europako batez bestekoarekin konparatuz gero ikus daiteke Espainiako estatuan

16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLEEN JARDURA-, OKUPAZIO- ETA LANGABEZIA-TASA LORTUTAKO PRESTAKUNTZA-MAILAREN ARABEAR, 2016 (%)

	Jardura-tasa			Okupazio-tasa			Langabezia-tasa		
	3. mailako ikasketakedo altuagoak	Ez-derrigorrezko bigarren mailako ik.	Derrigorrezko ik.	3. mailako ikasketakedo altuagoak	Ez-derrigorrezko bigarren mailako ik.	Derrigorrezko ik.	3. mailako ikasketakedo altuagoak	Ez-derrigorrezko bigarren mailako ik.	Derrigorrezko ik.
Andaluzia	78,1	63,2	47,8	64,3	46,7	29,9	17,7	26,2	37,5
Aragoi	80,8	70,2	41,3	73,3	58,9	33,0	9,2	16,1	20,0
Asturias P.	76,2	62,2	31,6	65,6	52,0	23,9	13,9	16,5	24,4
Baleiar uharteak	81,9	73,3	53,0	76,0	64,3	42,4	7,2	12,3	20,0
Kanariar uharteak	79,5	67,7	49,6	66,2	50,3	33,1	16,8	25,7	33,2
Kantabria	79,0	61,6	38,1	70,1	52,1	30,7	11,4	15,4	19,4
Gaztela eta Leon	79,0	66,6	39,3	70,9	56,9	30,6	10,3	14,6	22,0
Gaztela-Mantxa	82,6	69,7	46,4	70,6	55,1	32,3	14,5	20,8	30,5
Katalunia	84,5	72,2	44,3	77,2	60,2	33,9	8,7	16,5	23,3
Valentziako erk.	79,7	69,3	45,1	69,4	54,5	33,0	12,9	21,3	27,0
Extremadura	81,3	63,1	45,2	67,3	47,5	29,8	17,3	24,7	34,1
Galizia	79,4	65,5	37,1	69,7	54,5	28,7	12,1	16,7	22,6
Madril erk.	82,0	68,2	43,1	73,9	56,4	32,2	9,8	17,2	25,2
Murtzia	80,5	65,7	48,2	71,8	53,3	35,6	10,8	18,8	26,2
Nafarroako F. E.	81,7	63,5	37,9	76,3	53,6	30,5	6,6	15,8	19,5
Euskadi	80,4	60,7	34,2	73,7	52,1	27,3	8,3	14,1	20,1
Errioxa	83,5	67,1	42,4	75,8	59,0	34,2	9,2	11,8	19,5

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (INE)

eta Euskadin goi-mailako graduatua izateak abantaila erlatibo ematen duela Batasunean, oro har, izateak baino.

CyD txostenak egiaztatzen du, halaber, zenbat eta hezkuntza-maila handiagoa izan, orduan eta handiagoak direla egindako lanaren truke jasotzen diren diru-sarrerak ere; unibertsitate-mailarik altueneko tituludun batek (masterra edo doktoretza duenak) %63,1 gehiago jasotzen du batxilergoa edo erdi mailako prestakuntza-zikloak dituztenekin baino eta %91,3 gehiago derrigorrezko ikasketak besterik ez dituztenekin alderatuta. Hala ere, soldata horiek EBko testuinguruan jarriz gero egiaztatu daiteke Espainia ikasketa-maila altuagoa izateagatik sari gutxien ematen duten 10 herrialdeen artean dagoela.

Unibertsitate-ekintzailtza

CyD txostenak «Radiografía del emprendimiento universitario» azterketa ere jasotzen du, 14.000 ikasle baino gehiagori egindako inkesta batean oinarritua; bertan ondorioztatzen da ikasleen %29,3k enpresa bat sortzeko asmoa duela ikasketak amaitu eta hurrengo 3 urteetan. %4,9k dagoeneko sortu

duela dio eta %7,5ek, berriz, dagoeneko familiako enpresetan parte hartzen duela.

Inkesta horrek berak ekiteko beharrezkoak diren jarrera, ezagutza eta trebetasunetan ere sakontzen du. %56,1ek bere enpresa propioa sortu nahi du, laurden batek (%26,4k, zehazki) uste du ekiteko beharrezkoak diren ezagutzak eta trebetasunak dituela eta bere gaitasun ekintzailea sustatu dela. Hala, porrot egiteko beldurra da oztoporik garrantzitsuenetako bat, izan ere ikasleen %48,6k aipatzen baitu oztopo nagusi gisa.

Txostenak ezagutza, esperientzia eta lan-egoeraren, praktika profesionalen, genero, naziotasun eta egoera sozioekonomikoaren arabera definitzen duen profila (ikus 2. taula) gizonetzko batena da (%54), tarteko estatus sozioekonomikoa duena (%52,3), Espainian jaioa (%89,4), lan-esperientziaduna (%70,9) eta gizarte-zientzietako adarreko gradua (%39,2), ingeniariak (%24,0) edo humanitateak (%22,6) ikasten duena. Aldi berean, enpresa bat sortu duten unibertsitateko ekintzaile gehienak gizonetzkoak dira (%59,6), tarteko estatus


(4. orrietan jarraitzen du)

UNIBERTSITATE-TITULUDUNEN LAN-TASA ELGA-ko BATEZ BESTEKOA BAINO 4 PUNTU BEHERAGO DAGO

Espainiako hezkuntza-erakundeetako guztizko gastuak (publikoa eta pribatua), BPGaren ehuneko gisa, %3,9tik, 2005ean, %4,3raingo gora egin zuen 2015ean, ELGAko eta EB22ko herrialdeetako batez bestekoak baino zertxobait gehiago, horietan hamarren bat eta bi igo baitzen, hurrenez hurren. Hala ere, Espainiako guztizko gasua ELGAko gastutik urrun dago

oraindik ere (%5,2 2014an), baita EB22kotik ere (%4,9 2014an), «Hezkuntzaren ikuspegia 2017. ELGaren adierazleak. Espainiako txostenak» dioenez. Bertan adierazlerik garrantzitsuenen datuak jasotzen dira eta ELGAko herrialdeetakoekin alderatzen dira, baita Erakunde hori osatzen duten Europar Batasuneko 22 herrialdekoekin ere.

HEZKUNTZA-ERAKUNDEETAKO GASTUAREN EBOLUZIOA BPGAREN EHUNEKO GISA. LEHEN HEZKUNTZATIK HIRUGARRENERA (2005, 2010etik 2014ra). Gastu publiko eta pribatua



Hezkuntza-mailak, hobera.

Txostenak azpimarratzen du, halaber, 2006-2016 epealdian Bigarren Mailako Hezkuntzako lehen etapara (DBH, Espainian) edo behe-mailako ikasketetara heltzen den Espainiako biztanleria helduak (25-64 urtekoak) ia ehuneko 9 puntu jaitsi dela, %50,3tik %41,7ra, hain zuzen. Aldi berean, hezkuntza-mailak hobera egiten laguntzen du ere, tare horretan bertan, Hirugarren Mailako Heziketa duen Espainiako biztanleriaren gorakadak. %28,8tik %35,7ra igoz, eta neurri txikiagoan, Bigarren Hezkuntzako bigarren etapa dutenenak, %20,9tik %22,5era.


Hirugarren mailako hezkuntzari eta enpleguarekiko erlazioari eskainitako atalei dagokienez, zera ondorioztatzen du:

- **Zientzietako tituludun gehiago batez bestekoa baino:** Espainiako Hirugarren mailako Hezkuntzako gradudunetako %26k zientzia, teknologia, ingeniari eta matematika-alarretako titulua jaso zuten (STEM). Ehuneko hori ELGAko herrialdeen batez bestekoa baino handiagoa da, baina aldea are handiagoa da doktoretza-

programetako gradudun artean. %50 Espainian, ELGAko %43aren aldean.

- **Genero-alborapendun ikasketak:** Ikasketa-alorraren hautaketak genero-alborapen nabarmena du Espainian, baita ELGAN ere. Espainiako Ingeniaritza, Ekoizpen Industrial eta Eraikuntzako ikasle berrien %24 bakarrik ziren emakumezkoak 2015ean. IKT ikasketetako proportzioa %12koa izan zen ELGA, %19). Emakumeek pisu handiagoa dute Hezkuntzarekin loturiko karreretan (Espainia, %79, ELGA %78) eta Osasunekoetan (Espainia, %72, ELGA, %75).
- **Batez bestekoa baino enplegu-tasa txikiagoa:** Hirugarren mailako Hezkuntzako tituludunetako guztizko enplegu-tasa %80koa da Espainian eta %84koa ELGAN eta EB22n. Tasak, ordea, aldatu egiten dira alorraren arabera: Espainiako tasarik altuena Osasungintzako titulua dutenei dagokie, %86ko enpleguarekin, eta jarraian Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia dator (IKT), %84arekin. Tasarik baxuenak Hezkuntza eta Arte eta Humanitateetan erregistratzen dira, eta gizarte-zientzian, kazetaritza eta informazioan, %77arekin.

HIRUGARREN MAILAKO 25 ETA 64 URTE ARTEKO BIZTANLEEN ENPLEGU-TASA, IKASKETA-ARLOAREN ARABERA (2016). 25 eta 64 urte arteko biztanle enplegudunen ehunekoak, adin bereko biztanle guztien artean



(4. orrietan jarraitzen du)

INGENIARITZA, ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO UNIBERTSITATE-PRESTAKUNTZAREN KLUSTERRA SORTU DA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, prestakuntza-zentroek (horien artean UPV/EHU nabarmengarri), Confedebak eta 4.0 Industriarako Pilotatze Taldeak (Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Planean integratua) Ingeniaritza, Zientzia eta Teknologiako unibertsitate-prestakuntzaren klusterra eratu dute, unibertsitate-prestakuntzako zentroen talde handi bat, unibertsitate-ikerketako eragile eta enpresen arteko aliantza estrategikoak sortzeko helburua duena, elkarlana, elkarrekiko osagarritasuna eta ezagutzaren transferentzia bermatzeko eta graduako eta bizi osoan zehar graduondoko prestakuntza-eskaintzak garatzeko, aldaberatasun eta enplegarritasun handiko profesionalak prestatzeko.

Helburu nagusi horrez gain, Klusterrak asmo hauek ere baditu:

- Euskadiko unibertsitate-zentroen koordinazioa sustatzea unibertsitate-zentro jakin baten neurriaz gaindi doazen estrategiak eskatzen dituzten prestakuntza- eta ikerketa-beharrei erantzuna emateko.
- Egresatuen lan-txertatzea eta bere jarraipena areagotzea.
- Unibertsitate-prestakuntzaren internazionalizazioa eta berrikuntza sustatzea.

Klusterrak uste du beharrezkoa dela ekoizpen-ehunaren beharrak sakonago ezagutzea eta euskal enpresa eta erakundeekiko harreman hertsiaigoa izango duen unibertsitate-prestakuntzaren aurrera egitea. Horretarako, Klusterrak

hausnarketa bat bultzatuko du, euskal unibertsitate-prestakuntzak eskatzen dituen aldaketak eta hobekuntzak definitzeko eta irakaskuntza dualak ahal bezain laster ezartzea aztertzeko.

Lehen ekimenak AIC- Automotive Intelligence Ceter-en enpresa-unibertsitate gela bat abiaraztera zuzenduko dira, elkarlanean prestakuntza-proiektuak garatzeko gela, irakaskuntzaren arloan eta baita ikerketaren esparruan ere.

Klusterraren osara

Lehendakaritza

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila

Idazkaritza

Euskampus

Eragileak

4.0 Industria Pilotatze Taldea AIC
CONFEBASK (SEA-ADEGI-CEBEK)

Prestakuntza-zentroak

UPV/EHU Informatika-fakultatea
UPV/EHU Zientzia-fakultatea
UPV/EHU Zientzia- eta Teknologia-fakultatea
UPV/EHU Bilboko Ingeniaritza Eskola
UPV/EHU Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola
UPV/EHU Gasteizko Unibertsitateko Ingeniaritza Eskola
Deustuko Unibertsitateko Ingeniaritza Fakultatea
Mondragon Unibertsitateko Eskola Politeknikoa
Makina Erreminta Institutua IMH
Tecnum

(2. orritik dator)

sozioekonomikokoak (%48,1), Espainian jaiokoak (%88,7), lan-esperientzia dutenak (%81,3) eta gizarte-zientzietako adarreko ikasketak (%40,6), ingeniariak (%20,1) edo humanitateak ikasten dituztenak (%25,7). Azkenik, familiako enpresetako bazkideak diren unibertsitateko ekintzaile gehienak gizonetako dira (%52,0) tarteko estatus sozioekonomikokoak (%48,5), Espainian jaiokoak (%90,4), lan-esperientzia dutenak (%79,3) eta gizarte-zientzietako adarreko ikasketak (%35,7), ingeniariak (%21,4) edo humanitateak ikasten dituztenak (%25,4).

UNIBERTSITATE-EKINTZAILETZA 2. ETA 4. MAILAN

Unibertsitate-ekintzaitzaren adierazleak	2.	4.	Guztira
Balizko ekintzailea:			
Hurrengo 3 urteetan enpresa bat sortzeko asmoa	25,1%	33,0%	29,3%
Ekintzaile aktiboa:			
Enpresa bat sortu du	4,2%	5,6%	4,9%
Familiako enpresa bateko bazkide izan da	7,8%	7,3%	7,5%

(3. orritik dator)

- **Zenbat eta hezkuntza-maila handiagoa**, orduan eta enplegu hobeak: hezkuntza-kualifikaziorik baxuenak dituztenek langabezia-arrisku handiagoa dute. Hala, goimailako bigarren mailako hezkuntze osatu ez duten gazte helduen langabezia-tasa %30ekoa da, hala egin dutenen %20aren aldean eta hirugarren mailako heziketa dutenen %16arekin alderatuta.

- **Eta soldata hobeak**: Hezkuntza-maila handiagoak soldata altuagoak dakartza: Espainian, hirugarren mailako ikasketak amaitu dituzten 25 eta 64 urte bitarteko helduek %63ko soldata-abantaila daukate goimailako bigarren hezkuntzako ikasketak gainditu dituzten aldean (100eko oinarrian); hezkuntza-maila txikiagoa dutenek, aldiz, %29 gutxiago kobratzen dute. ELGA herrialdeetan ezberdintasunak pixka bat txikiagoak dira: %56 eta %22koak, hurrenez hurren.

LANEKO ERRENTAK JASOTZEN DITUZTEN BIZTANLEEN DIRU-SARRERA ERLATIBOAK (2015 edo adierazitako erreferentzia-urtea). 25 eta 65 urte arteko biztanleen prestakuntza-mailaren arabera (Bigarren Hezkuntzako bigarren etapa=100)

